



AIARAKO UDALAK 2022ko URRIAREN 5ean EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.
Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendíbil and.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko urriaren bostean, zortziak eta hogeita hamabost direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da buru, albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 9/2022 bilkurako kreditu gehigarria.

Ondoren, Udalbatzari kontu eman zaio Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua bidez, alkate udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan sar ditzakeela alde aurretik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egin eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du galdetzeko haziko den zenbatekotik zerbait berreskuratuko den.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ezetz, Aldundiak Garabide programa dela-eta emandako 48.000 euroen kargura dagoen beste zenbateko bat gaitu dela, eta zenbatekoaren gainerakoa Udalak jartzen duela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hitza hartu du idazkariari galdetzeko ea Udala zorpetu daitekeen. Ikusita geldikina gero eta txikiagoa dela, datorren urtean udalak dirua behar badu ea zorpetu daitekeen, lehen horren gaineko murrizketak zeudelako.

Idazkari andreak hitza hartu du erantzuteko udalak beti zorpetu daitezkeela, mugekin, izan daiteke aurretik zor asko zuten udalak egotea, eta horregatik arazo gehiago izatea, baina Aiarako Udalak ez du inolako zorrik, eta ez luke arazorik izango zorpetzeko. Ezarritako prozedura jarraitu beharko litzateke, eta zenbatekoaren arabera Aldundiaren baimena beharrezkoa izango litzateke. Gainera, beste konponbide batzuk daude likidezia-eskasiarako, batzuetan diruzaintza eragiketak egin daitezkeelako une puntualean likidezia lortzeko, epe laburreko eragiketak dira, ondoren Udalak sarrerak jasoko dituelako eta premia egoera desagertuko delako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du azaltzeko ekitaldi honetan geldikina agortzeak ez duela esan nahi hurrengo ekitaldirako ez dela geldikin gehiagorik lortuko, geldikina asko erabili dela, uholde-arriskuen azterketarako, adibidez, erabilera anitzeko eraikinaren obrarako gehitu behar izan zen zenbatekoa, etab. Inbertsio garrantzitsuak egiten ari dira, eta horregatik erabili behar izan da geldikina, baina Udalaren finantza-egoera ona da.

Ez da gaiaren gaineko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9k) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021 aurrekontua likidatzeak diruzaintza-geldikinaren zati bat gastu orokorretarako erabiltzeko ekarri duen beharra, 2022rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2023ra atzera ezin diren gastuak betetzeko.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan jasotakoarekin bat etorritik (17/2014 Foru Arauak aldatua). Txosten hori osoko bilkurari aurkeztuko zaio kreditu aldaketa honekin batera, jakinaren gainean egoteko.

OINARRIA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Aiarako Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatzen diren aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA/€
---------	-------	--------------



171.601.001	ARESPALDITZAN HAURRENTZAKO JOLASTOKIA EGOKITZEA	108.533,71 €
-------------	--	--------------

ZENBATEKOA, GUZTIRA: 108.533,71 €.

Aurreko zenbatekoa hemen adieraziko diren baliabideen bidez ordainduko da, era horretan, espedientea berdinduta geldituko da, inolako defizitik sortu gabe:

A. Handitu beharreko diru-sarreraren partidak edo erabili beharreko diruzaintza-geldikina:

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa/ €</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	108.533,71 €.
	GUZTIRA	108.533,71 €.

Onetsitako kreditu gehigarri guztien batura hura ordaintzeko diru-sarreraren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena.- Erabakia ALHAOn argitaratzea eta espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunetan, interesdunek aztertu eta beharrezkoak irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat jotzea. Erreklamazioak badaude, onesten edo ezezten dituen erabaki berria hartu beharko da.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko urriaren bostean.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.